



KANALAK

Enpresa kanalak dira enpresa batek komunikatzeko, bere produktuak edo zerbitzuak banatzeko eta bezeroekin, bazkideekin edo stakeholder-ekin harremanak ezartzeko erabiltzen dituen bitartekoak eta plataformak. Hainbat kategoriatan sailka daitezke, elkarreragin- edo helburu-motaren arabera. Hona hemen adibide batzuk:

Kanal propioak (zuzenekoak) bi dimentsio desberdinetan antolatuta daude: digitalak eta fisikoak, eta bakoitzak bere eginkizuna du dohaintza prozesuari errazteko eta ahalik eta esperientzia duinena eskaintzeko.

- **Kanala digitala:** Teknologia eskaintzen dizkigun aukerak baliatuz, mugikorretarako aplikazio bat eta webgune bat sortu ditugu. Hemen, emailek erraz erregistratu dezakete beraien informazioa eta lokalean arropa entregatzeko ordutegiak antola ditzakete. Webgunean, gainera, dohaintzen eraginari eta prozesuaren gardentasunari buruzko informazioa aurkitu dezakete. Sare sozialak ere erabiltzen ditugu, hala nola Instagram, Facebook eta TikTok, emaileak erakartzeko kanpainak sortzeko, eta onuradunen benetako istorioak partekatzeko, horrela konfiantza eta parte-hartzea sustatuz. Email marketina eta newsletter-ak ere erabiltzen dira, lokalean egingo diren ekitaldietarako gonbidapenak, dohaintzak egiteko oroigarriak eta kanpainen eguneraketak bidaltzeko.
- **Kanala fisikoa:** Lokala gure eragiketen gune nagusi bilakatzen da, non emailek arropa ekarri eta onuradunek behar dituzten jantziak aukeratu ditzaketen. Emailek arropa entregatzeko espazio eksklusibo bat izango dute, eta onuradunek espazio eroso eta duin batean egingo dute beren aukeraketa, beren beharrei erantzuten dien moduan. Lokalaren inguruan, estrategikoki kokatutako kartelak eta bannerrak izango dira, emaileak eta onuradunak erakartzeko.
- **Banaketa kanala:** Produktuen banaketa presentziala izango da, eta onuradunek lokalera joan eta beren beharretara egokitutako arropak aukeratu ahal izango dituzte. Espazioa, dendaren antzera, esperientzia duin bat eskaintzeko antolatu da, non pertsona bakoitzak behar duena lasaitasun eta errespetuz aukeratu ahal izango duen.
- **Dohaintza kanala:** Dohaintza prozesua aurrez aurrekoa izango da, eta arropa ekartzeko, emailek lokalera joan beharko dute ezarritako ordutegietan.



Langileek bertan bertan arropa sailkatzen eta antolatzen dute, tamaina eta motaren arabera, beharrezko den ordena eta kalitatea bermatuz. Prozesua gardena izango da: emailleek eta onuradunek ikusiko dute nola funtzionatzen duen sistema, eta horrek konfianza eta segurtasuna emango die guztiei. Gainera, lokalak bereziki antolatutako guneak ditu: dohaintzak jasotzeko, sailkatzeko eta entregatzeko. Horrela, prozesua azkar eta eraginkorra izango da, eta guztia leku bakarrean gertatzeak praktikoagoa egiten du.

Guzti honen bitartez, gardentasuna eta kontrola bermatzen dira, eta baita dohaintza eta jasotze prozesuak praktikoak eta atseginak ere. Emailleek eta onuradunek elkarrekin prozesuaren parte sentitu ahal izango dute, eta horrek elkartruke honen garrantzia indartuko du.

